

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa sortzeko bost partaideen elkarketa beharrezkoa da, gure elkartearen bidez erabaki dugu ondare-komunitate bat izatea, enpresa mota honen ezaugarriak gure produktuan lehenbailehen lan egiten hastea ahalbidetzen gaituztelako. Ondare-komunitate bat enpresarien arteko elkarte da proiektu komun bat ustiatzeko.

Parte-hartzaileek ondareak, dirua edo lana eman ahal izango dizkiote entitateari, Basoa enpresa osatzen dugun bost partaideen artean adostuta daukagu zein nolako ekarpenak egingo dituen bakoitzak, guztiak lan egingo dugu bakoitzak bere betebeharrak betetzen. Elkarte motan honetan ez denez beharrezkoa kapitalarik jartzea, gure adinan zaila denez aurretik dirua aurreztuta izatea enpresa bat sortzeko, guztiz on egiten gaitu. Inguralde-rekin elkartu gara zer diru-laguntza lor dezakegun adosteko, gainera azaldu dugunez gure elkarte mota ondare-komunitatea dela, argi adierazi gaituzte ez dagoela inolako arazorik Bizkaiko Foru Aldundia guri diru-laguntza emateko haien baldintzak betetzen baditugu. Argi dago eskatzen diguten baldintzak beteko ditugunez, eskaintzen diguten diru kantitatea izaterakoan kapital gisa erabiliko dugu hasierako kostuak estaltzeko.

Enpresaren partaide bakoitzak bere jarduera garrantzitsua du enpresaren garapena lortzeko, Basoaren kide bakoitza lanpostu espezializatu bat du, zeinean nagusi bezala aurkezten da. Jonek eta Naiarak enpresan sortzen diren diseinuen arduradunak dira, haien artean sortzen dituzte saltzen ditugun diseinuak, erakargarriak izaten; Itxasok alde ekonomikoan lan egiten du, enpresak dituen kostuen kontrola darama, gure negozioaren kostuak ahalik eta txikienak izaten lortuz. Azkenik, Sandrak eta Irunek beste enpresekin harremanetan jartzeaz arduratzen dira; bezero berriak lortzen arduratzen dira, baita publizitatearen zerbitzua kontrolpean daramate. Horregatik gure enpresan talde-lana ezinbestekoa da, gutako norbaitek bere betebeharra ez badu betetzen enpresa zailtasunak izan ahal ditu helburua lortzeko.

Lan eredia planifikatuta egonez, enpresaren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzen lortu dugu. Partaide guztiak erabakitako plana jarraituz eta errespetatuz, lortzen dugu lan-etekinak areago dadila baimenduko duen taldean eta denbora deitutako baliabide hain garrantzitsuaren erabilera eraginkorren lan eginez harmonia izatea. Guztia gure negozio-eredua optimizatzen laguntzen eta etorkizunean izan ahal ditugun arriskuak murrizten erantzun eraginkorra emateko.